



SEXU DIBERTSITATEA DIVERSIDAD SEXUAL

**Online ikastaroa dohainik.
1'5 kreditu (30 ordu).
Euskaraz eta gaztelaniaz.**

**Curso online gratuito.
1'5 créditos (30 horas).
En euskera y en castellano.**

KURTSOA / CURSO: Urriak 13 octubre / azaroak 27 noviembre 2026

<https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparaiaigualdad/online-ikastaroa>
<https://www.ehu.es/es/web/berdintasuna-direccionparaiaigualdad/online-ikastaroa>



SEXU-DIBERTSITATEA

Izena emateko epea: 2026ko
irailaren 14tik urriaren 5era, biak
barne

Hasiera data: urriaren 13a

Amaiera data: azaroaren 27a

ONLINE IKASTAROA

**IKASLE, IRAKASLE ETA
TEKAZELENTZAT**

100 PLAZA

EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

DOHAINIK

30 ORDU (1'5 KREDITU)

ARDURADUNA:

ENARA AGIRRE ARRIZABALAGA

EBALUATZAILE TALDEA:

JULEN ZABALA ALONSO

TANIA ARRIAGA AZCARATE

FERNANDO R. BARTOLOME GARCIA

FRANCISCO JAVIER MUÑOZ FERNANDEZ

UXUE DIEZ GUIRAL

PROGRAMA

SEXU-DIBERTSITATEA

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. HELBURUAK	3
3. GAITASUNAK	4
4. GAI TEORIKOAK ETA IRAKASLEAK	4
5. IRAUPENA	5
6. PRESTAKUNTZA IKASTAROAREN OINARRIZKO EGITURA	5
7. EBALUAKETA	5

Antolatzailea: EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.

Egileak: Alba Pons Rabasa, Lucas Platero Méndez,
Noemí Parra Abaunza, Gerard Coll Planas eta
Miquel Missé Sanchez

1. SARRERA

Ongi etorriak EHUK antolatutako **Sexu-dibertsitateari** buruzko **online** ikastaro honetara. Ikastaro honen helburua da hausnarketarako eta analisirako espazio bihurtzea, bizi garen gizartea hobeto bizitzeko. Ikastaroan zehar genero identitateen definizio hegemonikoak aztertuko ditugu; halaber, aztergai izango dugu nola eragiten duten horiek bizitzeko eta pentsatzeko moduen egituraketan (ezberdintasunak eta bazterketak sortuz). Normaltasun sozialak sexuari, generoari, genero adierazpenari eta sexu joerari buruzko zenbait arau ditu oinarri. Ezarritako arauei jarraitzea da “normal” kategoria izatea, eta halakotzat jotzen diren pertsonen ~~eskubide~~ pribilegio gehiago dituzte, gizartean eratutako arauekin bat ez datozen bestelako pentsamoldeak eta sentitzeko eta jarduteko moduak bizi eta erakusten dituztenen aldean.

Aniztasun sexuala eta **genero nortasuna** hainbat esangurako kontzeptu eta esperientzia konplexuak dira, eta garai historiko bakoitzeko egoera sozial eta politikoaren eraginpean daude. Hori dela eta, proposatzen dizkizuegun edukiak hainbat eta askotariko begiradetatik lantzen dira, bidegurutzean kokatutako analisi feministaren ikuspegitik.

Espero dugu ikastaro hau erabilgarri eta lagungarri izatea gaiaren oinarriak ulertzeko, ahaztu gabe material bizia dela eta etengabe berrikusten dela. Gonbidatu egiten zaituztegu ikasturtean zehar zuen ekarpen eta eztabaidak egitera. Esperientzia aberasgarria eta parte hartzailea izatea espero dugu, ideien truke eta eraikuntzan aurrera egin dezagun.

2. HELBURUAK

- Ezagutzea eta ulertzea genero teoria, horrek gure gizartean eragiten duen egiturazko banaketa eta hori birproduzitzen duten mekanismoak.
- Ezagutzea **interseksionalitatea** bezalako kontzeptuak eta horiek sexu dibertsitatearekin duten lotura.
- Analizatzea emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak, eta genero rolen ezberdintzea eta hierarkizazioa zeren ondorio den.
- Mugimendu feministaren eta LGTB mugimenduaren historia eta borroka ezagutzea eta aitortzea, marko teoriko gisa.
- Egitura sexistatik eratorritako ideia, pentsamendu, jarrera eta jokabideak identifikatzea, bestelako aukerak proposatzea eta horien ondorioen banakako zein taldekako dimentsioa ebaluatzea.
- Ikastaroko tresnen bidez komunikatzea eta transmititzea sexu dibertsitatearekin lotutako analisi, ideia eta haurtzarolari begirako lan proposamenak.

3. GAITASUNAK

- Oinarrizko kontzeptuak azaltzea: sexu generoa, rola, genero estereotipoak, androzentrismoa.
- Ezagutza lortzea eta barneratzea sexu-dibertsitateaz eta LGTBI+ delakoaren definizioez.
- Sexualitatea ulertzea askotariko gorputz, sentimendu, adierazpide eta harremanak izateko moduak ezagututa eta errespetatuta.
- Ezagutzea eta ulertzea sexu-dibertsitateari, transexualitateari, intersexualitateari, desio joerari eta genero identitateari buruzko kontzeptuak.
- Datu garrantzitsuak ezagutzea eta interpretatzea gure gizarteko sexu-dibertsitateaz eta horiek genero ezberdintasunekiko duten egoeraz, gizarte, zientzia edo etika gai garrantzitsuei buruzko hausnarketa barne biltzen duten iritziak emateko.
- Ezagutzea sexu-dibertsitateak politika publikoetan duen zeregin espezifikoak.
- Ezagutzea LGTBI+ arloko lan lerroek politika publikoetan izandako esperientziak

4. GAI TEORIKOAK ETA IRAKASLEAK

1. Gaia. Sexu-Dibertsitatea. Alba Pons Rabasa

- Normaltasun sexu-generikoa zalantzan jartzea gizartea eraldatzeko: sarrera labur bat sexu-dibertsitatea aztertzeko
- Generoa eta sexualitatea: ibilbide posible bat horren azterketa kritikorantz
- Sexualitatea eta politika: sexu-dibertsitatearen, feminismoen eta queer aktibismoen aldeko mugimenduak

2. Gaia. Interseksionalitatea, sexu-dibertsitatea eta genero-identitate dibertsitatea. Lucas Platero Méndez

- Zenbait politika publiko interseksionalen esperientziak
- Eredu potentzialki eraldatzaile baten mugak eta kritikak

3. Gaia. Genero-dibertsitatea haurtzaroetan. Noemi Parra Abaúnza

- Genero-dibertsitatea eta trans* haurtzaroak ulertzeko esparru bat
- Genero-dibertsitatearen arreta haurtzaroan

4. Gaia. Sexu- eta genero-dibertsitatearen ikuspegia txertatzea Berdintasun-politiketan. Gerard Coll Planas.

- Bidegurutzeak sexu- eta genero-dibertsitateari buruzko politiken inguruan
- Sexu- eta genero-dibertsitatearen politiken inplementazioan kontuan eduki beharreko alderdiak

5. Gaia. LGTBI politiken erronkak. Indarkeriak eta aukerak. Miquel Missé Sanchez.

- LGTBI politikek aurretik dituzten erronkak gizarteko esparru ezberdinetan
- LGTBIfobiari aurre egiteko mekanismoak

5. IRAUPENA

10 egun ikastaroko gai bakoitzerako eta astebete gehiago azken lanak emateko.

Hasiera data: urriaren 13a

Amaiera data: azaroaren 27a

6. PRESTAKUNTZA IKASTAROAREN OINARRIZKO EGITURA

- Ikastaroaren eduki teorikoa lau gairen inguruan egituratzen da. Gai bakoitzak elementu hauek ditu:
- Unitate bakoitzaren eduki teorikoa: Gaia sakon lantzen duen ekarpen teoriko bat, 20-30 orrialde artekoa. Irakasleak egingo du.
- Dokumentazioa: unitate didaktiko bakoitzak zerrenda bibliografikoa izango du, bai eta erreferentziazko gaietan sakontzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako baliabideak (artikuluak, bideoak, albisteak, etab.) ere.
- Partaidetza foroa: foro bat egituratzen da gai bakoitzean. Foroaren bidez artxibo eta dokumentuak partekatu ahal izango dira.
- Testa: lortutako ezagutzak baloratzeko, unitate didaktiko bakoitza amaitzean eta hurrengo unitateari ekin baino lehen aurrera egiteko, ezagutza neurtzeko test bat egin beharko da.
- Azken lana. Azken lana egingo da: gutxienezko luzera 800 hitzekoa izango da, eta gehienekoa 1000 hitzekoa.

8. EBALUAZIOA

Ikastaroa gainditzeko, gai bakoitzeko testak (5) gainditu beharko dira, gutxienez bi forotan parte hartu beharko da eta azken lana gainditu beharko da.